



**I** Infantilak  
**G** Gizonezkoak  
**E** Emakumezkoak

# Eskubaloia

## ARAUDIAREN EGOKITZAPENAK



### ESKUBALOIA

#### 1. JOKO EREMUAREN ETA ATEEN NEURRIAK.

##### 1.1. Joko eremuaren forma eta neurriak.


Joko eremua 40 m luze eta 20 m zabaleko laukizuzen bat da; alde luzeenei "alboko marra" deitzen zaie eta motzenei "ateko marra". Joko eremua bi zatitan banatuta dago ateko marren paraleloan dagoen erdiko marra baten bidez, eta 2 ateko area daude. Zelai erdian lau metroko borobil bat egongo da, sake esparrua deritzana.

##### a) Oinarrizko seinalizazioa.

- **"Jaurtiketa librearen marra"** marra eten baten bidez markatzen da, 15na cm-ko trazuak eta hutsarteak tartekatuz. Marra hori 3 metroko zuzena izango da, atetik 9 metrora dagoena ateko marraren paraleloan, eta mutur bakoitza 9 metroko erradioa duen zirkulu laurden batez osatzen da. Zirkulu horren erdia ateko zutoin bakoitzaren barrualdeko atzeko ertza da.
- **Penalti puntua** metro bateko luzera duen marra batez adierazten da eta atearen erdiaren parean ateko marraren paraleloan margotzen da ateko marraren kanpoko aldetik 7 metrora.
- **Ateko arearen marra** 3 metroko marra zuzen baten bidez markatzen da ateko marratik 6 metrora, mutur bakoitza 6 metroko erradioa duen zirkulu laurden batez osatzen da. Zirkulu horren erdia ateko zutoin bakoitzaren barrualdeko atzeko ertza da.



Federación Gipuzcoana de Balonmano  
Gipuzkoako Eskubaloi Federazioa  
Paseo Anoeta 5, ofi. 31  
20014 Donostia-San Sebastián  
Tfn. 943 452634  
Fax. 943 473161







Federación Guipuzcoana de Balonmano  
Gipuzkoako Eskubaloi Federazioa  
Paseo Anoeta 5, ofi. 31  
20014 Donostia-San Sebastián  
Tlfm. 943 452634  
Fax. 943 473161



## 1.2. Ateen forma eta neurriak.



## 2. TALDEEN OSAERA. JOKALARIAK TXANDATZEA ETA ALDATZEA.

### 2.1. Taldeen osaera.

**a) Jokalariak aktan.** Talde bakoitzak gutxienez 7 jokalaria eta gehienez 23 izango ditu, eta partidako aktan izena eman behar dute, 16 gehienez eta 5 gutxienez. Talde bakoitzak nahitaez atezain batekin jokatu behar du. Atezain lanetan aritu den jokalaria jokalekuko jokalaria gisa aritu daiteke elastikoa aldatu ondoren, era berean jokalekuko jokalaria bat atezain gisa aritu daiteke elastikoa aldatu ostean.

**b) Joko eremuko jokalariak.** Joko eremuan, eta aldi berean, talde bakoitzeko gehienez ere 7 jokalaria egongo dira (jokalekuko 6 jokalaria eta atezaina). Gainerako jokalariak ordezkoak dira. Partida hasteko eta bukaera arte jarraitu ahal izateko gutxienez talde bakoitzeko 5 jokalaria egongo dira.

### 2.2. Jokalariak aldatzea.

**a)** Epaila federatuak dauden kasuetan, aktan izena eman duten jokalari guztiek gutxienez 20 minutu partiduan zehar jokatu behar dute.



Federación Guipuzcoana de Balonmano  
Gipuzkoako Eskubaloi Federazioa  
Paseo Anoeta 5, ofi. 31  
20014 Donostia-San Sebastián  
Tlfm. 943 452634  
Fax. 943 473161



- b)** Baloia jabetza duen taldeak soilik egin ahal izango ditu aldaketak, lesioren bat edo istripuren bat gertatzen denean izan ezik, orduan edozein unetan egin ahal izango baitira.
- c)** Inork ezingo ditu 60 minutuak jokatu (4 x 15`), ezta atezainak ere.

OHARRA: Partida bat hasi aurretik taldeek epaileari jakinarazi beharko diote aldi bakoitzean zein jokalaria parte hartuko duten, eta aldaketak egiteko gunean edo aulkian soilik aktan izena emanda daudenak (jokalaria, ofizialak eta entrenatzaileak) egotea zaindu beharko dute.

### **3. PARTIDEN IRAUPENA.**

Partidak 2 zati izango ditu (30` + 30`) lehenengo eta bigarren denboren artean hamar minutuko atsedenaldia egongo da.

### **4. MATERIALA.**

Baloiak 50 eta 52 zentimetro bitarteko zirkunferentzia edukiko du (neurria: 1). Pisua ez da 315 gramotik gorakoa izango.

### **5. ARAU TEKNIKOAK.**

#### **5.1. Ateko area.**

Atezaina bakarrik egon daiteke ateko arean. Jokalekuko jokalariren batek gorputzeko edozein atalekin ateko area ukituz gero, baita ateko arearen marra ere, area barruan sartu dela ulertuko da eta zigortu egingo da.

#### **5.2. Nola jokatu daitekeen baloia.**

Onartzen da:

- a)** Baloia jaurti, kolpatu, bultzatu, ukabilez jo eta gelditzea edo esku, beso, buru, soin, izter eta belaunen laguntzaz baloia hartzea.
- b)** Baloia 3 segundoz gehienez edukitzea, nahiz eskuetan nahiz lurrean dagoela.
- c)** 3 urrats egitea gehienez, baloia eskuetan dela. Urratsa izango da honakoetan:
  - Bi oinak lurrean dituela, jokalaria batek oin bat jaso eta berriz lurrean jartzen duenean edota oina jaso edo mugitzen duenean.
  - Oin bat lurrean duela, jokalaria batek baloia hartu eta jarraian beste oinarekin lurra ukitzen duenean.
  - Jauzi-gailurrean dagoen jokalaria batek oin bakarrarekin lurra ukitu eta oin beraren gainean berriz jauzi egiten duenean, edo beste oinarekin lurra ukitzen duenean.



- Jauzi-gailurrean dagoen jokalaria batek bi oinak batera lurrean jarri eta oin bat jaso eta berriz ere lurrean jartzen duenean edo oina mugitzen duenean.

### **5.3. Aurkariarekiko portaera.**

Onartzen da:

- a) Baloia eskuratzeko besoak eta eskuak erabiltzea.
- b) Aurkariari baloia kentzea ahurraz eta edozein aldetatik.
- c) Aurkariari bidea oztopatzea soinarekin, baloia ez eduki arren.

### **5.4. Alboko sarea.**

Alboko sarea ateratzen duen jokalaria alboko marra zapaldu behar du oin batekin gutxienez baloia jaurti bitartean.

### **5.5. Ateko sarea.**

Ateko sarea txilibitua jo gabe eta ateko areatik egin behar da.

### **5.6. Jaurtiketa librea.**

Jaurtiketa librea txilibitua jo gabe eta, nagusiki, falta gertatu den lekutik egiten da. Falta ateko arearen marra eta jaurtiketa librearen marra artean gertatu bada, erasoan ari den taldearen aldeko jaurtiketa librea jaurtiketa libreko marratik egingo da, falta puntutik gertuen dagoen lekutik, eta sarea egiten den bitartean erasoan ari diren jokalariek ezingo dute marren arteko eremuan egon.

### **5.7. 7ko marrako jaurtiketa.**

7ko marrako jaurtiketa zuzenean ate aldera egin behar da, arbitroak txilibitua jo eta ondorengo 3 segundotan.

Jaurtiketa egiten den bitartean, jaurtizailea bakarrik egon daiteke ateko arearen eta jaurtiketa librearen marren artean. Jokalari horrek ez du 7 metroko marra ukitu edo gainditu behar baloia bere eskutik atera aurretik.

7ko marrako jaurtiketaren ondoren ezingo da baloia berriz jokatu ez badu atezaina edo atea ukitzen.



Federación Gipuzcoana de Balonmano  
Gipuzkoako Eskubaloi Federazioa  
Paseo Anoeta 5, ofi. 31  
20014 Donostia-San Sebastián  
Tlfm. 943 452634  
Fax. 943 473161



## 5.8. Jaurtiketak.

Erdiko eta alboko sakea, jaurtiketa librea edo 7ko marrako jaurtiketa egiten denean, jaurtitzailak lurretik altxa gabe eduki behar du oinetako bat, bestea, berriz, altxa edo lurrean jarri dezake zenbaitetan. Baliozko gola lortu daiteke zuzenean jaurtiz edozein sake edo jaurtiketatik.

## 5.9. Defentsa motak.

Debekatuta dago defentsa mistoak, hau da, etengabe jokalaria bat defenditzea.

Banakako defentsak eta defentsa irekiak onartzen dira (3:3, 4:2 eta 3:2:1). Beti ere kontutan hartu behar da, defendatzaile aurreratuak, bederatziko metroko marra aurrean kokatu behar direla nabarmen.

Kontutan izan behar da beti ere, defentsa lerro bakoitzaren artean distantzia nabarmena izan behar dela, bi metrokoa gutxienez.

Defentsan kide gutxiago direnean, edozein sistema erabil daiteke (5:0, 4:1,...) defentsa mistoa izan ezik.

Azkeneko hamabost minutuetan hautazkoa izango da 5:1 edo 6:0 defentsa motak erabiltzea.

### Defentsa sistemaren araua ez betetzea

Taldeetakoren batek defentsa sistemaren araua betetzen ez badu, honela jokatuko da: Lehenengo aldia: jokoa eten egingo da eta defentsan ari den taldearen entrenatzaileari edo ordezkariari ohartarazi egingo zaio baimendu gabeko defentsa egiten ari direla. Beste taldearen aldeko jaurtiketa batekin ekingo zaio berriro jokoa, jokoa eten den unean baloia zegoen leku beretik.

Arau hori behin eta berriz urratzen bada, 7 metroko jaurtiketa adieraziko da arauz kontrako defentsa nozitzen ari den taldearen alde.

7 metroko jaurtiketaren emaitza edozein dela ere (gola izan edo ez), jaurtiketa egin duen taldearen alboko sake batekin ekingo zaio berriro jokoa, hegaleko eta erdiko marrak bat egiten duten lekutik, kronometratzaileen mahaia edo aldaketak egiteko gunean dagoen aldean, betiere. Hau da, araua urratu ez duen taldeak 7 metroko jaurtiketa izango du bere alde, eta ondoren baloiaren jabetza. Beraz, 7 marrik egiten den jaurtiketa lehen zatiaren edo bigarren zatiaren amaieran egiten diren jaurtiketen antzekoa izango da (denbora amaiturik dagoenean), eta ez da aldaratzerik egongo.

## 5.10. Geldotasuna.

Joko geldoarekin zigortu aurretik, taldea erasoan denbora galtzen ari delako, joko geldoaren keinuarekin eta ahoz abisatuko da. Erasoan dagoen



taldeak 4 pase izango ditu gehienez jaurtiketa bat egiteko. Paseak ahoz eta jokalariek entzuteko eran ahoskatuko dira.

### **5.11. Itsasgarrien erabilera.**

Guztiz debekatuta dago baloira egokitzeko edozein gai erabiltzea.

### **5.12. Partidaren azken emaitza.**

**Gol bakoitzaren balioa batekoa da.** Golen arteko aldea 30 goletik gorakoa denean: kasu horietan, partidua gelditu egingo da epailaren aldetik, eta egoera horren berri emango zaie talde bakoitzeko arduradunei. Denbora amaitu arte ekingo zaio partiduari, eta joko-arau guztiak aplikatuko dira, baina golen zenbaketa eraman gabe. Beste kasu guztitan, talde bakoitzak partidaren zehar sartzen dituen gol guztiak kontuan hartzen dira. Azken emaitza bi taldeen arteko golen aldeak erabakiko du.